Gradu hau, bizitzaren genetikaren oinarriarekiko eta honen ezagutzaren ondoren datozen aplikazioekiko interesa duten ikasleei zuzenduta dago.

Ikasketa hauek egokiak dira ondorengo interesak dituzten ikasleentzat: batetik, oinarrizko ikerketa eta genetika edo antzeko zientzien irakaskuntza eta bestetik, beste hainbat gaietako prestakuntza, esaterako, genomika, biomedikuntza, bioteknologia, farmazia, nekazaritza eta abeltzaintzaren hobekuntza, elikadura-industria, auzitegi-genetika edo bioetika.

Biologiako maila aurreratua izatea eta batxilergoan matematika, fisika eta kimika ikasi izana gomendatzen da. Ingelesa ezagutzea gomendagarria da.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak.
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Genetikako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ikasketa plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	42	18	0	0	60
2	18	42	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	0	54	6	60
Guztira	60	120	54	6	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Biologia Zelularra eta Histologia.
- . Kimika.
- . Matematika.
- . Mikrobiologia.
- . Laborategi Integratua I eta II.
- . Animalien eta Landareen Biologia.
- . Biokimika.
- . Genetika.
- . Animalien Fisiologia

Bigarren maila:

- . Bioestatistika.
- . Ekologia.
- . Prokariotoen Biologia Molekularra.
- . Eukariotoen Biologia Molekularra.
- . Zitogenetika.
- . Laborategi Integratua III eta IV.
- . Garapenaren Biologia.
- . Populazioaren Genetika.
- . Mutagenesia.
- . Teknika Instrumentalak.

Hirugarren maila:

- . Genomika, Proteomika eta Interaktonika.
- . Bioinformatika.
- . Genetika Kuantitatiboa eta Hobekuntza.
- . Giza Genetika.
- . Ugaltzearen Biologia.
- . Laborategi Integratua V eta VI.
- . Eboluzio Biologikoa.
- . Diagnostiko Genetiko eta Molekularra.
- . Genetika Medikoa.
- . Sistemen Biologia Molekularra.
- . Bioetika eta Araudia.

Laugarren maila:

- . Gradu Amaierako Lana.

Hizkuntzak: katalana, gaztelania eta ingelesa.

LAN IRTEERAK

- Ikerketa genetikoak (oinarrizkoak edo klinikoa) zentro publiko, enpresa edo ospitaletan.
- Hezkuntza eta irakaskuntza unibertsitatean, erdi-mailako ikasketa zentroetan edo erakundetan.
- Nekazaritza eta abeltzaintzaren genetikaren hobekuntza.
- Politika zientifikoa, auzitegiko medikuntza, aitatasun-frogak. Elikadura-industriaren kalitatearen kontrola (trazabilitatea, arraza, barietate eta transgenikoen detekzioa).
- Zabalkunde eta itzulpen zientifikoen aditua (egunkariak, aldizkariak, argialetxeak...).
- Ingurumen aholkularitza, aniztasun genetikoak eta kontserbazioko erakunde eta enpresak (zooak, parke naturalak).
- Zerbitzu genetikoetako enpresak (sekuentziazioa, microarrays, analisi genomikoak, bioinformatika).
- Enpresa genomiko eta diagnostiko genetikoen aholkularitza genetikoak eta zuzendaritza.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * San Pablo Unibertsitatea
- * Francisco de Vitoria Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

GEOLOGIAKO GRADUA

Geologiako Graduak lurra, bere osagaiak eta bertan gertatzen diren fenomenoak aztertzen ditu. Geologiako ikasketek ondoko arloetarako beharrezko ezagutza eskaintzen dute: lurraren konposaketa eta egiturarako analisia eta materialak, jatorria eta garapena, espazio-erlazioak, eta meatze, hobi, harrobi eta petrolio-zundaketa bidezko materialen lokalizatzea.

Bestelako azterketa hauek ere egin daitezke: arroak eta sumendiak, estatigrafia eta sedimentologia, agente atmosferikoak, uraren zikloa, arroken adinaren azterketa eta bertan gertatzen diren aldaketak, eta baita geodinamikako aspektuak ere.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Geologiako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizkoak	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	54	6	0	0	0	60
2	0	0	60	0	0	60
3	0	0	60	0	0	60
4	0	0	18	30	12	60
Guztira	54	6	138	30	12	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Biologia. 6 kreditu
- . Geologiako Osagarriak. 6 kreditu
- . Fisika. 9 kreditu
- . Geologia. 6 kreditu
- . Konputazioaren Hastapena. 6 kreditu
- . Matematika I. 6 kreditu
- . Matematika II eta Estatistika. 6 kreditu
- . Kimika I. 6 kreditu
- . Kimika II. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Kartografia Geologikoa. 9 kreditu
- . Kristalografia. 6 kreditu
- . Estratigrafia. 6 kreditu
- . Egitura Geologia. 6 kreditu
- . Geomorfologia. 6 kreditu
- . Mineralogia. 9 kreditu
- . Paleontologia. 6 kreditu
- . Sedimentologia. 6 kreditu
- . Tektonika. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Bioestratigrafia eta Paleoekologia. 6 kreditu
- . Diziplina Anitzeko Kanpamentua. 6 kreditu
- . Geokimika. 6 kreditu
- . Geoteknia. 6 kreditu
- . Hidrogeologia. 9 kreditu
- . Petrologia Metamorfikoa. 6 kreditu
- . Petrologia Sedimentarioa. 6 kreditu
- . Petrologia Ignea. 6 kreditu
- . Hobi Mineralak eta Harri Industrialak. 9 kreditu

Laugarren maila:

- . Arroen Analisia eta Geologia Historikoa. 6 kreditu
- . Geofisika. 6 kreditu
- . Ingurumen Geologia eta Arrisku Geologikoak. 6 kreditu
- . Gaikako Kartografiak eta Teledetekzioa. 6 kreditu
- . Euskarazko Komunikazioa: Zientzia eta Teknologia. 6 kreditu
- . Meatzeen Geologia. 6 kreditu
- . Geologia Isotopikoa. 6 kreditu
- . Ingeniaritza Geologikoa. 6 kreditu
- . Ingurune Sedimentarioak. 6 kreditu
- . Mikropaleontologia. 6 kreditu
- . Mineralogia Analitikoa. 6 kreditu
- . Euskararen Arauak eta Erabilera. 6 kreditu
- . Enpresetako Praktiak. 6 kreditu
- . Baliabide Energetikoak. 6 kreditu
- . Tektonika Konparatua. 6 kreditu

MINORRA

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Oinarrizko geologiako minorra
- . Geologia aplikatuari buruzko minorra

LAN IRTEERAK

Honakoak dira geologoaren egitekoak: lurraren eta bere materialen konposaketa eta egitura, prozesu fisiko eta kimikoak, jatorria, espazio-erlazioak eta denbora-bilakaera aztertzea, materialak aurkitzea (hobiak, harrobiak, meategiak, petrolio-zundaketak) eta Ingeniaritza Zibileko lanek (eraikinak, zubiak, autobideak, tunelak...) kokaleku izango duten lur-sailen ezaugarriak aztertzea.

Eginkizun garrantzitsua du, halaber, etxe zein industriadun ur-hornidurari buruzko azterketa-lanetan eta aro espazialak aurrera egin ahala, planetarteko baliabideen ikerlanetan ere murgiltzen ari da.

Geologoa, batez ere, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta Geologia aplikatua jardun daitezke.

Irakaskuntzan (titulatu gehien hartzen dituen lan-irtenbidean) maila guztietan ari daiteke, hau da, Lehen Hezkuntzatik Fakultateetako Eskola Teknikoetara. Ikerkuntza-lanak Unibertsitateetan zein Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiaren (CSICen) mendeko zentro eta erakundeetan gara daitezke, hain zuzen ere, bi maila hauetan:

- Oinarrizko Ikerkuntza: ezaupide berriez jabetzeko
- Ikerkuntza Aplikatua: helburu edo aplikazio praktiko bat gauzatzeko.

Geologia Aplikatua teknika aplikatuen bidez garatzen da, eta honen helburuak izaten dira: herrialde baten azpiegitura geologikoa ezagutzeko, Erauzketa Industriadun baliabide handia izan dezaketen baliabide geologikoa aurkitzea, azpiegituren inguruko arazoei konponbidea ematea edo ingurumena erabili eta zaintzea.

Ondokoak dira Geologiako graduatuak behar izaten dituzten enpresak: erauzketa-enpresak, eraikuntza-enpresak, energetikoak (batik bat petrolio-enpresak), ingurumena zaintzen dutenak, sismologikoak, lurpeko uren zundaketak egiten dituztenak eta aholkularitza-enpresak.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)
- * Alacanteko Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Huelvako Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Oviedoko Unibertsitatea
- * Salamancako Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

INGURUMEN ZIENTZIETAKO GRADUA

Ingurumen Zientzietako Graduatuaren titulua eskuratzera zuzendutako ikasketek ingurumenaren alderdi zientifiko eta sozialen inguruko prestakuntza egokia eskaini beharko dute. Ikasketa hauek ingurumen-kudeaketa, lurralde-antolamendu eta ingurumen-zientzia eta tekniken berezko alderdiei buruzko orientabideak eskaini beharko dituzte, eta honetaz gain, ingurumenari buruzko legeria eta araudia jorratu. Honakoak dira aztergai dituen helburu nagusiak: natur baliabide, lurzoru, ur, flora eta faunaren kudeaketa eta kontserbazioa eta gizarte-transformazio eta -aldaketek ingurumenean dituzten eraginak.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Ingurumen Zientzietako Gradua 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastordua.

IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Beste adar batzuetako oinarrizkoak	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	36	12	12	0	0	60
2	0	12	48	0	0	60
3	0	0	48	12	0	60
4	0	0	32	18	10	60
Guztira	36	24	140	30	10	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Animalien Biologia. Zoologia. 6 kreditu
- . Biologia. 6 kreditu
- . Estatistika. 6 kreditu
- . Fisika. 6 kreditu
- . Geografia Analisia. 6 kreditu
- . Geologia. 6 kreditu
- . Kimika I. 6 kreditu
- . Kimika II. 6 kreditu
- . Landareen Biologia. 6 kreditu
- . Matematika. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Biodibertsitatea. 9 kreditu
- . Ekologia. 9 kreditu
- . Geomorfologia eta Edafologia. 6 kreditu
- . Ingurumen Administrazio eta Legeria. 6 kreditu
- . Ingurumena eta Gizartea. 6 kreditu
- . Ingurumen Ingeniaritzaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Ingurumen Kutsaduraren Tratamendua. 9 kreditu
- . Kutsatzaileen Analisia. 9 kreditu

Hirugarren maila:

- . Ekonomia Jasangarria. 6 kreditu
- . Faunaren eta Floraren Kudeaketa eta Kontserbazioa. 6 kreditu
- . Geografia Informazioko Sistemak. 6 kreditu
- . Ingurumen Inpaktua Kudeatzeko eta Ebaluatzeko Sistemak. 9 kreditu
- . Lurralde Antolakuntza eta Ingurumena. 9 kreditu
- . Meteorologia eta Ozeanografia. 6 kreditu
- . Proiektuen Antolakuntza eta Kudeaketa. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Ingurumenari Lotutako Epidemiologia eta Osasuna. 6 kreditu
- . Ingurumen Hezkuntza eta Gizarte Ohiturak. 6 kreditu
- . Praktikak enpresan. 20 kreditu
- . Gradu amaierako lana. 10 kreditu

Titulazio honen izaera esperimental delako eta, ikasleek laborategi-, ordenagailu, eta landa-praktiken bidez egin beharko dute nahitaez irakaskuntza osoaren % 25a gutxi gorabehera. Bestalde, ikasleek kanpo-praktikak egin beharko dituzte hiru hilabetez azken ikasturtean, enpresa pribatu edo erakunde publikoen menpe dauden zentroetan, eta ingurumenaren edozein arlo jorratu ahal izango dute. Halaber, gradu amaierako lan bat ere burutu beharko dute, egindako kanpo-praktikekin loturikoa.

LAN IRTEERAK

Lanerako aukera ugari dituzte profesional hauek, kontuan hartzen badugu ingurumenarekin loturiko jarduerak guztiek gora egin dutela eta orain arte aztertzeke egon den esparrua delako. Epe laburrera, aholkularitza eta enpresa handiek zein toki-, autonomia- eta estatu-mailako erakunde ofizialek hainbat jarduerak garatzeko profesional hauen ezagutzen beharra izango dituztela aurreikusten da. Ondorengoak dira, besteak beste, aipatu jarduerak: ingurumenaren ebaluazioa eta ikuskaritza, kutsadura-mailaren kontrola, ingurumen-arriskuen azterketa, lurraldearen antolamendua, hondakin-uren tratamendua, natura eremuen kontrola eta kudeaketa, eta uren kalitatea zaintzea eta hobetzea.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Vitoria-Gasteiz)
- * Alcala de Henaresko Unibertsitatea
- * Almeriako Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Cadizko Unibertsitatea
- * Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatea
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Gironako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Huelvako Unibertsitatea
- * Jaengo Unibertsitatea
- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- * Kordobako Unibertsitatea
- * Leongo Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- * Malagako Unibertsitatea
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Nafarroako Unibertsitatea
- * Pablo Olavide Unibertsitatea
- * Salamancako Unibertsitatea
- * Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
- * Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- * Valentziako Unibertsitatea
- * Vic-eko Unibertsitatea
- * Vigoko Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Nafarroako Unibertsitatea](#)

KIMIKAKO GRADUA

Substantziak eta horien eraldaketak eta erreakzioak jorratzen dituen zientziaz jabetzea, materiaren eta energiaren arteko interakzioak eta ezaupide hauek guztiak aplikatzen ikastea datza Kimikako Gradua.

Honakoak aztertu eta ikastea du helburu: substantzien konposaketa eta ezaugarriak, zein horietan naturalki edo eraginda gerta daitezkeen aldaketa kualitatiboak, materiaren konposizioa, material-mota desberdinak eta industria kimikoko prozesuak.

Jarduera-eremu zabalean aritu ahal da Kimikako graduatua, materia sintetiko eta geroko aplikazioarekin zerikusirik duen guztiarekin, hala nola: Petrokimika, industria farmazeutikoa, papergintza, etab.

Medikuntzako graduatuek bezala, Kimikakoek ere ospitale publikoetan jardun dezakete, lau urteko ikastaldia egin ondoren espezialitatea eskuratzen badute. BAKE (Barneko Kimikari Egoiliar) deritzo, eta Medikuntzako BAMEaren baliokidea da.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak.
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Kimikako Gradua 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	60	0	0	0	60
2	0	60	0	0	60
3	0	48	12	0	60
4	0	12	30	18	60
Guztira	60	120	42	18	240

ONARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Biologia. 6 kreditu
- . Fisika. 12 kreditu
- . Geologia. 6 kreditu
- . Matematika I. 6 kreditu
- . Matematika II eta Estatistika. 6 kreditu
- . Metodologia Esperimentala Kimikan. 6 kreditu
- . Laborategiko Oinarrizko Eragiketak. 6 kreditu

- . Kimika Orokorra I. 6 kreditu
- . Kimika Orokorra II. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Biokimika. 6 kreditu
- . Esperimentazioa Kimika Fisikan. 6 kreditu
- . Esperimentazioa Kimika Ez Organikoan. 6 kreditu
- . Esperimentazioa Kimika Organikoan. 6 kreditu
- . Kimika Analitikoa I. 9 kreditu
- . Kimika Fisikoa I. 9 kreditu
- . Kimika Ez Organikoa I. 9 kreditu
- . Kimika Organikoa I. 9 kreditu

Hirugarren maila:

- . Esperimentazioa Kimika Analitikoan. 6 kreditu
- . Ingeniaritza Kimikoa. 6 kreditu
- . Kimika Analitikoa II. 9 kreditu
- . Kimika Fisikoa II. 9 kreditu
- . Kimika Ez Organikoa II. 9 kreditu
- . Kimika Organikoa II. 9 kreditu

Laugarren maila:

- . Materialen Zientzia. 6 kreditu
- . Industri Kimikako Proiektuak. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 18 kreditu

Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

Université de Strasbourg-ekin (Frantzia) titulazio bikoitza lortzeko aukera izango duzu.

MINORRA (Gipuzkoako Campusa)

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Makromolekulei buruzko minorra
- . Kimika eta Biozientzietako minorra

LAN IRTEERAK

Kimikariaren oinarrizko prestakuntza balioanitze da, ondoko arloetan aritzeko gai prestatzen dutelarik: irakaskuntza, ikerkuntza, industria edo sektoreko enpresetako zuzendaritza tekniko edo orokorra.

Bestalde, kimikako sektorea gero eta zabalagoa da, arlo berriak hartu baititu bere gain, hala nola: ekologia, agrokimika, ikerkuntza medikoa, energia, etab.

Industria kimikoko enpresa-arloan aipatzekoa da Marketing Kimikoa, ondoko arloetan lanpostuak sortzen baititu: merkataritza-arloan, banaketa-arloan eta industria eta kimika-produktuen inguruko merkatu-azterketaren arloan.

Industria kimikoarekin ez ezik, ondorengo arloak lantzen dituzten industriekin ere lotzen dira kimikarien lan-irtenbideak: farmazia, elikagaiak, material berriak, produktu berrien diseinua eta lanketa, kutsatzaileak antzematea, ingurumenaren babesak, analisiak, zerbitzu publikoak, informatika, irakaskuntza eta ikerkuntza laborategi publiko eta pribatuetan.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa eta Donostia)
- * Alacanteko Unibertsitatea
- * Alcala de Henaresko Unibertsitatea
- * Almeriako Unibertsitatea
- * Balear Uharteetako Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Burgosko Unibertsitatea
- * Cadizko Unibertsitatea
- * Castellóko Jaime I.a Unibertsitatea
- * Coruñaiko Unibertsitatea
- * Errioxako Unibertsitatea
- * Extremadurako Unibertsitatea
- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Gironako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Huelvako Unibertsitatea
- * Jaengo Unibertsitatea
- * Kordobako Unibertsitatea
- * La Lagunako Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Malagako Unibertsitatea
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Nafarroako Unibertsitatea
- * Oviedoko Unibertsitatea
- * Ramon Llull Unibertsitatea
- * Rovira I Virgili Unibertsitatea
- * Salamancako Unibertsitatea
- * Santiagoko Unibertsitatea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
- * Valentziako Unibertsitatea
- * Valladolideko Unibertsitatea
- * Vigoko Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Nafarroako Unibertsitatea](#)

Info Gaztea

MATEMATIKAKO GRADUA

Gradu honek matematiken inguruko oinarrizko alderdiei eta alderdi aplikatuei buruzko zientzia-prestakuntza egokia ematea du xede. Ikasketa hauek izaera zientifiko eta kuantikoa izateaz gain, logikoa ere badute eta, nolabait hainbat alderditan baita filosofiaren ingurukoa ere. Matematika-sistema eta -metodoen ikerketa eta formulazioa lantzen dira.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Matematikako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa-plana

	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	60	0	0	0	60
2	0	60	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	0	48	12	60
Guztira	60	120	48	12	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Aljebra Lineala eta Geometria I. 12 kreditu
- . Kalkulu Diferentziala eta Integrala I. 12 kreditu
- . Fisika Orokorra. 12 kreditu
- . Konputazioaren Sarrera. 6 kreditu
- . Oinarrizko Matematika. 6 kreditu
- . Programazioaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Estatistika Deskribatzailea. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Kalkulu Diferentziala eta Integrala II. 15 kreditu
- . Zenbakizko Metodoak I. 6 kreditu
- . Matematika Diskretua. 6 kreditu
- . Aljebra Lineala eta Geometria II. 6 kreditu
- . Egitura Aljebraikoak. 6 kreditu
- . Kurbak eta Gainazalak. 9 kreditu
- . Topologia. 6 kreditu

. Probabilitate Kalkulua. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Ekuazio Diferentzialak. 12 kreditu
- . Neurria eta Integrazioa. 6 kreditu
- . Aljebra Trukakorra. 6 kreditu
- . Inferentzia Estatistikoa. 6 kreditu
- . Zenbakizko Metodoak II. 6 kreditu
- . Ekuazio Aljebraikoak. 6 kreditu
- . Kurben eta Gainazalen Geometria. 6 kreditu
- . Eredu Matematikoak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Bi seihilekoen artean hautazko irakasgai dagozkien 48 kreditu egin beharko ditu.

Hizkuntzak: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

Université de Pau et des Pays de l'Adourek (Frantzia) titulazio bikoitza lortzeko aukera izango duzu.

MINORRA

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Matematika hutseko minorra
- . Matematika aplikatua, estatistika eta konputazioari buruzko minorra

LAN IRTEERAK

Matematikari batek unibertsitatetik irteetan dituen gaitasunek jarduera profesional oso ezberdinetan aritzeko ahalmena ematen diote. Matematikako tituludunen okupazioari dagokionez, sektore esanguratsuenak ikerketa hutsa eta aplikatua, irakaskuntza, informatika, telekomunikazioak, aholkularitza, aseguruak, bankuak eta finantzak eta enpresen antolaketa dira.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)
- * Alacanteko Unibertsitatea
- * Almeriako Unibertsitatea
- * Balear Uharteetako Unibertsitatea
- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * Bartzelonako Unibertsitatea
- * Cadizko Unibertsitatea
- * Enpresaren Nazioarteko Unibertsitatea
- * Errioxako Unibertsitatea
- * Extremadurako Unibertsitatea

- * Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
- * Granadako Unibertsitatea
- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- * Kantabriako Unibertsitatea
- * Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
- * La Lagunako Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- * Malagako Unibertsitatea
- * Murtziako Unibertsitatea
- * Oviedoko Unibertsitatea
- * Salamancako Unibertsitatea
- * Santiagoko Unibertsitatea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
- * Valentziako Unibertsitatea
- * Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea
- * Valladolideko Unibertsitatea
- * Zaragozako Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

NANOZIENTZIA ETA NANOTEKNOLOGIAKO GRADUA

Nanozientzia eta nanoteknologia fenomenoen ikerketaz eta materialen manipulazioaz arduratzen dira, eskala atomiko, molekular eta makromolekularrean.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Nanozientzia eta Nanoteknologiako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ikasketa plana

Ikasmailak	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu amaierako lana	Guztira
1	54	6	0	0	60
2	8	52	0	0	60
3	0	60	0	0	60
4	0	18	30	12	60
Guztira	62	136	30	12	240

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Nanozientzia eta Nanoteknologistarako Sarrera. 6 kreditu
- . Biologia Zelularra. 6 kreditu
- . Fisika Orokorra: Mekanika eta Uhinak. 6 kreditu
- . Lotura Kimikoa eta Materiaren Egitura. 6 kreditu
- . Matematikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Biokimikaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Fisika Orokorra: Elektrizitatea eta Magnetismoa. 6 kreditu
- . Erreaktibotasun Kimikoa. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Biokimika Metabolikoa. 6 kreditu
- . Fisika Klasikoaren Zabaltzea. 6 kreditu
- . Elementuen Kimika. 6 kreditu
- . Tresna Matematikoak. 6 kreditu
- . Tresna Elektronikoak. 6 kreditu
- . Biologia Molekularra. 6 kreditu
- . Kimika Organikoa. 6 kreditu
- . Termodinamika, Zinetika eta Fase Eraldaketa. 6 kreditu
- . Mikroskopia eta Materialen Karakterizaziorako Laborategia. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Material Kristalino eta Amorfoen Egitura eta Sintesia. 6 kreditu
- . Solido-egoera. 6 kreditu
- . Kimika Supramolekularra eta Ezagutza Molekularra. 6 kreditu
- . Espektroskopia Molekularra. 6 kreditu
- . Gainazalen Fisika eta Kimika. 6 kreditu
- . Fenomeno Kuantikoak I eta II. 6 kreditu
- . Gailu Elektronikoak. 6 kreditu
- . Kimika Analitikoa. 6 kreditu
- . Mikrobiologia, Immunologia eta Kultibo Zelularrak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu
- . Fisika Nanoeskalan. 6 kreditu
- . Nanofabrikazioa. 6 kreditu
- . Mikro eta Nanosistemak. 6 kreditu

Hizkuntzak: katalana, gaztelania eta ingelesa.

MINORRA

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Nanosistemen Fisika eta Kimika
- . Bionanoteknologia

LAN IRTEERAK

- Ikerketa, garapena eta berrikuntza. Ezagutza zientifiko-tekniko berrietan oinarritutako industrietan (bioteknologia, mikroelektronika, telekomunikazioak, energiaren biltegiatzea, material berriak...) eta industria tradizional berrizaitetan (kimika, farmazia, biomedikuntza, zeramika, ehungintza...)

- Teknika, prozesu eta produktu nanoteknologikoen zuzendaritza, kontrola eta plangintza estrategikoa ondorengo industrietan: elektronikak, telekomunikazioak, biomedikuntza, bioteknologia, farmakologia...

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- * Coruñako Unibertsitatea
- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)